



Espediente zk./Nº Expediente: 2019SZUZ0015 Erreg. data/Fecha Reg: 2019/01/31  
Erreg. zk. / Nº Registro: 001791  
Gaia/Asunto: DIRULAGUNTZAK 2019. KULTURA - SUBVENCIONES 2019. CULTURA  
MIKELAZULO KULTUR ELKARTEA: HITZARMENA 2019  
Eskatzailea/Solicitante: MIKELAZULO KULTUR ELKARTEA NAN(IFK)/DNI(NIF): G20529277  
Kokalekua/Emplazamiento: ERRENTERRIA



ZUZENENKO DIRU-LAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO HITZARMENA

Errenteria, 2019ko urriaren 17a

BILDU DIRA:

Batetik, Ion Collar Rioseco, Errenteriako Udaleko Kultura Saileko Zinegotzi Ordezkarri gisa.

Bestetik, Jose Ramon Gurrutxaga Zubizarreta, NAN: 72.426.857-H duena, eta helbidea: Juan de Olazabal 23, 9. C, Errenteria.

PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak, Errenteriako Udalaren izenean, Alkateak emaniko eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta.

Bigarrenak, bere izenean eta Mikelazulo Kultur Elkartearen ordezkarietan, IFZ: G20529277 duena, eta helbidea: Beheko Kalea 4, Errenteria.

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

AZALTZEN DUTE:

I. Mikelazulo Elkarteak Errenteriako kultura ekimena eta herritarren esku-hartzea bultzatzen duen kultur erakundea dela.

II. Mikelazulo, elkargunea eta dinamika sortzailea da. Hortaz, urtero sortzen diren proiektu asko eta asko ezin dira aurreikusi, horretan baitatza esperimenezkoa eta sormena.

III. Mikelazulo Elkarteak antolatutako ekintzek tradizioa eta garrantzi handia hartu dute, jada, herrian. Esaterako: Herrien Astea, Lupa dokumentalen mostra, Poesia Uneak, hileroko programazioari dagozkion kontzertu, erakusketa, poesia eta antzerki ikuskizunak, hitzaldiak eta liburuen aurkezpenak, liburu eta aldizkarien argitalpenak eta laguntzen dituen hainbat antzerki talderen emanaldiak.



IV. Ekimen horiek eragina dute herriko kulturean, baita herriaren izen ona zabaltzean ere.

V. Ekintza horiek burutzeko egin beharreko ahalegina handia dela, eta ondorioz sortzen diren diru eskasiak ere bai.

VI.- Kultura saileko Zinegotzi Ordezkiaren Dekretuaren bidez, 2019-10-16koa, erabaki da Mikelazulo Kultur elkarteari ematea zuzeneko diru-laguntza nominatiboa. Horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

- Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1.a) artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) -aurrerantzean, Ordenantza-

- azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea-

Azaldutakoaren arabera Errenteriako Udalak eta Mikelazulo Kultur elkarteak erabaki dute hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen konpromisoak diru-laguntza ematea burutu dadin.

#### KLAUSULAK:

##### **Lehengoa: Hitzarmenaren xedea**

Hitzarmen honen xedea da aldeen eskubide eta betebeharrak finkatzea, 2019-10-16ko dekretuaren bidez emaniko diru-laguntzarekiko. Diru-laguntza horren xedea da Mikelazulo Kultur Elkartearen proiektua finantza dadin, eta, modu horretan, aldeek baldintzak eta konpromisoak eratu ditzaten.

##### **Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa**

Diru-laguntzaren gehieneko diru-kopurua 6.400,00 eurokoa izango da, aurrekontuko 7517 partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2019 urterako.

##### **Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena**

Lankidetzat hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta 2019-12-31n amaituko da.

##### **Laugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak.**

Hitzarmen honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) Mikelazulo Kultur elkarteari (IFK G20529277) 6.400,00 euroko diru-laguntza ordainduko da, eta era honetan:

5.120,00 euro, hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik.

1.280,00 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren

b) Diru-kopuru horretan sartuko dira ekintzak eta horiek hedatzeak eragindako gastu guztiak, baita materialari nahiz argi eta soinu tresneriari dagozkionak ere.

Hitzarmen honen xede diren jardueretarako, Udalak doan utziko ditu udal jabetzako espazioak, betiere, erabilgarri egonez gero eta onartutako programazioaren arabera (IKUS d) puntua).



c) Udalak doan utziko du berea duen materiala (mahaiak, aulkiak, hesiak, taulak, e.a.), betiere, erabilgarri egonez gero eta Udaleko Hiri Mantenua Sailarekin adostuz gero.

d) Errenteria Hiria Niessen Kulturguneko espazioei dagokienean, Mikelazulo Kultur Elkartek urtean 4 astetan erabili ahal izango du Auditorioa edota entsegu-gela (astelehenetik ostiralera eta arratsaldez bereziki), betiere, erabilgarri egonez gero eta onartutako programazioaren arabera. Lagapen hori, batik bat, Errenteria Hiria Niessen Kulturgunean burutuko diren proiektuetarako izango da.

Mikelazulo Kultur Elkartek eta Kultura Sailak aurretik hala hitzartuz gero, Errenteria Hiria Niessen Kulturguneko beste espazio batzuk ere erabili ahal izango dira; betiere, erabilgarri egonez gero eta Kultura Sailak zehaztutako programazioa kontuan hartuta.

**Bosgarrena: Diru-laguntzaren entitate onuradunak harturiko konpromisoak.**

Hitzarmen honi jarraiki diru-laguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

- a) Kultura proiektua garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurreikusiriko epean gauzatuko da.
- b) Hilez hileko programazioari dagozkion jarduerak urte osoan zehar mantentzea, hala nola, kontzertuak, erakusketak, poesia eta antzerki ikuskizunak, hitzaldiak eta liburu aurkezpenak.
- c) Jarduera horiek doan izatea eta, oro har, publiko mota guztiei bideratuta egotea.
- d) Urtean lauzpabost jarduera burutzea udal ekipamenduetan edo Errenteriako plaza nahiz kaleetan.
- e) Beharrezkoak diren udal baimenak edo bestelakoak eskatzea.
- f) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:
  - Diru-laguntza eman duen erakundearen justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.
  - Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.
  - Beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.
  - Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.
  - Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.
  - Jasotako diru-kopuruaren aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.
- g) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.
- h) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: Diru-laguntzaren entitate onuradunak diru-laguntza bidez



*Handwritten signature*

*Handwritten signature*



eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatziari dagokionez:

-Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak ele bitan egongo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin alde aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar, gubxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: Diru-laguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkarteez antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

i) Berdintasunerako klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoak.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeke edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

j) Ingurumenaren alorreko klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehienezko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklatuak izango dira, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

k) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irriti, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalaren lankidetzara, esaldi honen arabera: "Errenteriako Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarrria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin



banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

**Seigarrena: Diru-laguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.**

Errenteriako Udalak, Kultura saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, .urtarrilean, Udalean aurkeztu beharko du diru-laguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen kopia bat.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Diru-laguntza jasotzen duen entitate hartzaileak, memoriak gain, aurkeztu beharko du CD bat programaren eta jardueren argazkiekin (argazki bakoitzari zein jarduera edo programa dagokion adierazi beharko da), hala nola hedapenerako erabiliriko euskarri guztiak.

**Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin.**

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

**Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea.**

Diru-laguntzaren entitate onuradunak Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmen hau aldatzea ezarritako epeak zabalitzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

**Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.**

Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.



Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arrazoiak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

**Hamargarrena: datu pertsonalak babestea.**

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarrikoia betetzea.

**Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa.**

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

**Hamabigarrena: Araubide Juridikoa.**



Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarrikoia uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

**Hamahirugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa.**

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den idazpuruan.

<p>MIKELAZULO KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA</p> 	<p>KULTURA SAILEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA</p> 
<p>Stua.: Jose Ramon Gurrutxaga Zubizarreta</p>	<p>Stua.: Jon Collar Rioseco</p>